



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, HAUR HEZKUNTZAREN CURRICULUMA EZARRI ETA IRAKASKUNTZA HORIEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZARTZEKO XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak xedatzen du autonomia-erkidegoek bertan araututako irakaskuntzen curriculuma ezarri behar dutela.

Hezkuntzari buruzko abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu egin zuen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, eta beste eskumen banaketa bat sartu zuen Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean. Esate baterako, gutxieneko irakaskuntzek eskola-ordutegien % 50 beharko dutela ezarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoan bezala hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoentzat.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio irakaskuntzaren gaineko eskumen propioa, bere hedadura, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan. Eskumen hori erabiliz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (gaur egun Hezkuntza Saila) Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntza antolatzen duten bi zikloei dagokien curriculuma onartu zuen, eta abenduaren 22ko 237/2015 DEKRETUA argitaratu zuen, Haur Hezkuntzako curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (urtarrilaren 15eko EHAA).

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren idazketa berriak, Hezkuntzari buruzko abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak emandakoak, aldaketak ekarri ditu hezkuntzaren etapa guztien ikuspegi pedagogikoan, eta aldaketa horiek, Haur Hezkuntzari dagokionez, hezkuntza-etapa hori Oinarrizko Hezkuntzarekin lotzeko dekretu hau argitaratzera behartzen dute.

Dekretu hau aukera bat da hezkuntza-sistema osoarentzat, eguneratze pedagogikorako eta helburu berrietara bultzatzeko, hezkuntza-sistemaren kalitatea etengabe hobetzeko gizarte-eskariarekin bat etorritik.

Horregatik, dekretu honek haurra eskola-sisteman sartzearekin zerikusia duten alderdi guztiak jasotzen ditu, arreta berezia jarritz haurraren ongizatean eta ingurune naturalarekiko harremanean, eta hezkuntza osoan zehar, pertsonaren funtsezko gaitasunak erabat garatzea lortzeko oinarriak ezartzen ditu.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, Arau-xedapenaren proiektua: kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunen web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasoko da.



Kontsulta alderdi hauei buruzkoa izan behar da:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukera alternatibo erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Hori dela eta, xedapen orokorra egin aurreko kontsulta-izapidea bete nahi da, arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek aukera izan dezaten parte hartzeko eta planteatzen den arauari ekarpenak egiteko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta erakunde, entitate edo elkarte guztiei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eraginpeko erakundeek, herritarrek eta beren erakundeek egokitzen jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasean.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.-Haur Hezkuntzako curriculum auzari eta irakaskuntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dituen dekretuaren proiektua jendaurrean jartzea, hura egin aurretik.

Bigarrena.- Arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek, hala nahi izanez gero, hamar egun balioduneko epea izango dute agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria- Gasteiz, 2022eko irailaren 11an

JOKIN BILDARRATZ SORRON
CONSEJERO DE EDUCACIÓN